



Lezo Herri eskoia



Edukia

Sukaldari eta ¹
zaintzaileen be-
tebeharrak

Ikasleen bete- ²⁻³
beharrak

Familien betebe- ⁴
harrak

Jangelako ordu- ⁵
tegia

Arauk haustea- ⁵
ren ondorioak

Jangela barruko araudia

Sukaldarien eta zaintzaileen betebeharra

Sukaldeko langileak Hezkuntza Sailaren menpeko langileak dira eta sinatutako hitzarmenak dagozkien lanak erregulatuko ditu.

Zaintzaileen lanak beren enpresak eta Jangela Batzordeak adostutakoak izango dira. Besteak beste, ondoko hauek:



On egin !!!!

Dituzten
bitartekoekin
zerbitzu
egokia ematea
dute helburua



Ummm!! Bai gozoa !!

- ✦ Bere taldeko jankideak azaltzen diren ala ez kontrolatuko dute eta, gertakarik egonez gero, arduradunari jakinaraziko diote.
- ✦ Jangelako sarrera kontrolatuko dute eta, batez ere, ikasleen garbitasuna.
- ✦ Jantokian ordena zaintzeaz arduratuko dira.
- ✦ Ikasleei Barne-Araudi hau betearaziko diete.
- ✦ Lehen hezkuntzako 5. mailatik gorako, ikasleen parte hartzea sustatuko dute, mahaietako tresnak jarri eta jasotzeko lanetan.
- ✦ Ikasleei jangelatik ateratzeko baimena ematea.
- ✦ Ikasleak Eskolako esparruaren barruan egotea begiratuko dute, beraien arteko elkarbizitza eta seguritatea zainduz.
- ✦ Ikastetxe barruan gelditzen diren ikasleak lasai egon daitezen kontrolatuko dute.
- ✦ Egoerak horrela eskatuz gero, jangelako gorabehera parte bete eta Jangelaren arduradunari emango diote.
- ✦ Jangela garaian antolatzen diren jardueren kontrola eta dinamizazioa hartuko dituzte bere gain.
- ✦ Zaintzaileek aisialdia jolas eta ekintzen bidez dinamizatuko dute.
- ✦ Zaintzaileek eskolako sarrerak, jolastokia, kantxa eta komunak zainduko dituzte. Zaintzaileak lan hau egiteko haien artean koordinatuko dira.
- ✦ Zaintzaileek ikasgeletara igotzeko ateak itxita izango dituzte. Zaintzaileek korridoretan ordena, giro lasaia eta garbitasuna zainduko dituzte.

Ikasleen betebeharrak

😊 **Jangelara sartu baino lehen**, komunikatu pasatu eta eskuak garbituko dituzte. Gero bazkaltzen bukatu arte ezingo dute baimenik gabe atera.

😊 **Jangela barruan:**

👉 Ikasle orok bere tokia izango du eta, ikasturte osoan bertan eseriko da.

👉 Denetik jan behar da. Plater bakoitzeko gutxieneko bat jango dute hurrengo platerera pasatzeko.

👉 Erabiltzaile guztiak aldezturik ezagututako menu bera bazkalduko dute. Ikasleren batek dieta berezia beharko balu, dagokion osasun agiria (medikuaren ziurtagiria) aurkeztu eta aldezturik abisatu ondoren, prestatuko da.

👉 Jangelara bazkaltzera eta, ahal bada, giro lasaian gustura egotera etortzen gara. Beraz:

- ◆ Ez da tresneria edo janariarekin jolastuko.
- ◆ Ez da zarata edo iskanbilarik sortuko, ezta garrasika hitz egingo ere.
- ◆ Bazkaltzean jendetasunez eta txukuntasunez arituko dira. Tresna eta instalazio guztiak zainduz.
- ◆ Jangelatik ezingo dute janaririk atera.

👉 Bazkal ondoren eta 2. txandakoek mahaia garbitu egin behar dute; horretarako mahaikideak elkarren artean antolatu behar dira. Bukatutakoan, zaindarien baimena eman arte itxarongo da jangelatik mahaien arabera atera ahal izateko.

👉 Zerbait gertatzean zaindariei abisua emango diete.



Gaur pasta!!

**Giro lasaia
izateko
eskubidea eta
betebeharra
dugu.**



Ondo erabil gaitzazu.
Mesedez!!!

Ikasleen betebeharrak

Ikasleek jolastokian mugitzeko aukera izango dute baina baita lasai, goxo edo eserita egoteko ere. Halaber, lanean, irakurtzen, musika entzuten, ikaskideekin hitz egiten edo beste jarduera lasai batzuetan aritzeko tarteak izango dute, horrela nahi badute.

Ikastetxe barruan egoteko ikasleek **JOLAS-GELA** (tailer-gela) eta **LIBURUTEGIA** irekiak izango dituzte, barruan jendetasuna izanez.



Jolas-gela, jolasteko (mahai-jokoetan, eskulanak egiteko, marrazteko...) edo lasai egoteko gela izango da, beti ere giro lasaia zapuztu gabe. Zaintzailea ikasleek materiala behar bezala erabiltzeaz arduratuko da eta, erabili ondoren, txukun jasotzen dutela ziurtatuko du. Amaitutakoan, mahaiak eta aulkiak ordenatu eta jaso egingo dituzte.

Liburutegia irakurtzeko, informazioa bilatzeko edota eskolako lanak egiteko erabiliko da. Bertan, liburutegiaren funtzionamendu araudia onartuko da.

Liburutegiaren ordutegia:

1. txanda: 12:30 - 13:45
2. txanda: 13:45 - 14:30












Jangela garaian eskola barruan antolatzen diren **jardueren osagarrietan** eskoletarako dugun diziplina araudi bera erabiliko da.


Jangela garaian **ezin da eskolako itxituratik atera.**

**Jangela
garaian ezin
da eskolako
itxituratik
atera.**



Ikaslearen familiaren betebeharrak

-  Dagokion **kuota** ordainduko du ezarritako epeen barruan.
-  Kuotak, hilaren lehenengo egunetan kobratuko dira **banku-helbideratzearen** bitartez.
-  Erabiltzaile guztiek kopuru berdineko zortzi kuota (HH2koek izan ezik, hauen kasuan zazpi) ordaindu beharko dituzte, lehenengoa urrian eta maiatzean azkena. **Bi kuota** ez ordaintzeak jangelako zerbitzutik kanpo gelditzea dakar.
-  **Gaixotasuna dela medio**, jangela zerbitzua ez bada erabiltzen, dirua bueltatuko da beti ere bi aste baino gehiagoko hutsegitea bada, eta medikuaren agiria aurkeztuz gero. Kasu hauetan kitapena kuotaren %50a izango da, hau da, janariari dagokiona. Jangelarako diru laguntza jasotzen duten ikasleei ez zaie dirurik itzuliko.
-  Kurtsoan zehar norbaitek baja ematea erabakitzen badu, kuoten kitapena egingo zaio.
-  Bazkaltzeko aukeratutako astegunak finkoak izango dira eta ezin dira nolanahi aldatu.
-  Izena emana ez duen ikasleren batek noizbehinka jangela zerbitzua derrigorrez erabili behar izanez gero, hau justifikatzen duen agiria aurkeztu behar du eta jangela arduradunarekin aurrez hitz egin beharko du. Kontuan izan, honelako kasuan onartu ahal izango dela, administrazioak jarritako zainzailearen ratio bete arte. Noizbehinkako erabiltzaileak, ez badu egiaztagiria aurkezten, ez du aurrerantzean Jangela zerbitzua erabiltzeko aukerarik izango.
-  Ikasle, zainzaile eta sukaldeko langileei errespetua zor zaie. Jantokian zein jolastokian arazoak sortuz gero, arduradunarekin hitz egin eta honek zainzaileei jakin araziko diete.
-  Egunen batean, bazkaltiar bat ez bada jangelan geldituko, hori adierazten duen oharra tutoreari erakutsi ondoren, **jangelaren postontzian utziko du. Ahal izanez gero ez etortzearen abisua bezperan egitea gomendatzen da.**
-  Jangela garaian **ezin da eskolako itxituratik atera**. Edozein kasutan, eskolatik kanpo egiten diren ekintza osagarrietara (musika, gimnastika erritmikoa, eskola kirola, ingelesa...) joan ahal izateko, **gurasoen baimen idatzia** aurkeztu behar diote bai tutoreari, bai jangelaren arduradunari ere. Beti ere, ekintza hauetan parte hartzeko jangelako txandetan ez da aldaketarik onartuko.
-  Jangelaren arduradunarekin hitz egiteko, aurretik ordua eskatu beharko da telefono honetara deituz: **943-514804. Ordutegia hauxe izango da: 09:15etatik 12:00etara**



Bazkaltiarra ez bada jangelan geldituko, jangelaren postontzian oharra utzi behar da.



Jangelako ordutegia

↪ Ikasleek bi txandatan bazkalduko dute, bazkaltiarren banaketa kopuruaren arabera izango da eta OOGak erabakiko du:

1. txanda: 12:30 2. txanda: 13:45

↪ Jangelaren erabiltzaileek bere ordutegia (12:30-15:00) errespetatu beharko dute. Arrazoiren batengatik ikasleek denbora tarte horretan atera beharko balu, egun horretan jangela-zerbitzuari utzi beharko lioke.

↪ HH2 eta HH3ko ikasleek ordutegi berezia erabil dezakete eskolatik ateratzeko: 13:45ean edo 15:00etan. Beti ere, ikasturte hasieran abisatuz gero.



Jangela
ordutegian
eskolatik atera
behar izanez
gero, egun
horretan
jangela-
zerbitzua ezin
izango da
erabili.

Arauk haustearen ondorioak

Arauk hausteak ondorioak izango ditu eta beharrezko neurriak hartuko dira, gorabehera-partean adieraziz. Hutsegitea larriagoa balitz, Jangela Batzordeak hutsegiteari dagozkion neurriak hartuko lituzke.

↪ Araudi honen aurkako jarrerak zuzentzeko, hutsegiteekin bat datozen neurriak hartuko dira, beti ere ikaslearen hezkuntza-prozesua hobetze bidean. Okerra zuzentzeaz gain, gertatutakoaren kausez eta hutsegiteak eragindako kalteez hausnarketa eragiteko erabakiak hartuko dira, aurrerantzean horrelakorik berririo gerta ez dadin.

↪ Hutsegiteak horrela eskatzen duenean eta alderdiak entzun ondoren, Jangela batzordeak Jangela-txostena idatziko du eta atal hauek zehaztuko ditu: gertae-rak; hutsegitea kalifikatzeko oinarriak; kasua bada, egoera aringarriak edota as-tungarriak, eta azkenik ebazpena, hartutako neurriak zehaztuz.

↪ Hutsegitea larria edo oso larria izanez gero, arau-hauslea Jangela zerbitzutik kanpo behin -behinean edo behin betiko geratzea aztertuko da.



LEZO HERRI ESKOLAKO ORDEZKARITZA ORGANO GORENA